



GENERO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO NAHITAEZKO TXOSTENA, GIPIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2025ERAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARENA.

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikulua; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 27. artikulua.

Zehazki, txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27. b) artikulua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldeztetik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak, 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoak. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2024ko urriaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion egin zezala goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko txostena. Aurreproiektu horren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2025rako aurrekontu orokorrak onartzea.

Foru arau bat denez, 2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa behar du. Eta xede horrekin, proiektua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena egin du, aipatutako arauko 27.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, hain zuzen ere.

Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko txostena egin du, 15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.



EGIAZTAPENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak **bi arau erregulazio mota deskribatzen ditu**: batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontu orokorra, eta, bestetik, zerga araudiaren aldaketa jakin batzuen, zeina aplikagarria baita 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera. Aldaketa horiek aurreproiektuaren xedapen iragankorretan daude jasota, eta berriaz eragiten diote, batetik, Gipuzkoako Foru Ogasunaren zenbateko finkoko garraio arloko jarduerak egin eta zerbitzuak emateagatikotasen eguneratzeari, ez dituelako oinarriaren ehuneko batek zehazten edo ez daudelako moneta unitateetan baloratuta; bestetik, katastro balioak eguneratzeari ondasun higiezin gainera zergan (OHZ); eta, azkenik, AP-8 eta AP-1 autobideen Gipuzkoako Lurralde Historikoko zatia eta AP-636 autobia erabiltzeko kanonaren zenbatekoak eguneratzeari.

Era berean, **behar bezala identifikatzen du aurreproiektuaren genero egokitasuna**; izan ere, Gipuzkoan bizi diren pertsona fisikoei, emakumeei eta gizonei, eragin diezaiekeela aurreikusi du, baliabideetarako sarbidea eta/edo kontrola berdintasunezkoa izan ala ez erraztu baitezake, bai eta genero rolak eta estereotipoak hausten laguntzen duten gizarte portaerak bideratu ere.

Ondoren, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun potentzialak identifikatzen ditu txostenak, eta aurreproiektuak desberdintasun horietan eragiteko ahalmena du. Halaber, bertan jasotako erregulazioek izan dezaketen genero inpaktuaren balorazioa egiten du, kontuan hartuta, alde batetik, planteatutako aurrekontu araudia, eta, bestetik, proposatutako zerga araudia.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzea eta aurrekontu araudiaren genero eragina aztertzea

Aurrekontu araudiari dagokionez, txostenak dio Gipuzkoan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen identifikazioa eta proposatutako aurrekontu erregulazioa genero ikuspegitik aztertzea "Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2025eko aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio memoria" txostenean jasota daudela. Memoria hori, era berean, txosten honekin batera doa aztergai dugun aurreproiektua izapidetzeari.

Memoria, zeina Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren arteko lankidetzaren emaitza baita, berritzailea da, ez bakarrik aurrekontu arauaren genero eragina ebaluatzeko lege eskakizunari erantzuten diolako, baizik eta, gainera, "emakumeen eta gizonen

berdintasunean aurrerapenak bermatuz politika publikoak eraldatzea" ahalbidetzen duen lan prozesu baten parte izateko borondatea duelako. Horregatik, memoriaren helburuak honako hauekin lotuta daude: aurrekontu plangintzan genero ikuspegiaren txertaketa pixkanaka hobetzearekin; gardentasunarekin eta herritarrei kontuak ematearekin, bilketa jarduerak eta gastu publikoak emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezaketen eraginari buruzko informazio argia, zehatza eta eskuragarria ematen den heinean; eta, azken batean, aurrekontu araudia Gipuzkoako emakumeen eta gizonen bizitza garatzen den eremu guztietan agertzen diren desberdintasunak zuzentzeko tresna bat izatea bermatzearekin.

Memoria honen izaera berritzailea, ordea, lotuta dago ez soilik lortu nahi dituen helburuekin eta hura egiteko elkarlanerako moduarekin, baizik eta baita ere aztergai diren edukiekin eta aurrekontu proposamenean aztertutako dimentsioek izan dezaketen genero eraginaren ebaluazioa egin ondoren ateratako ondorioekin.

Horrela, txostenak zehazten duen bezala, Memoriaren edukiak testuinguru sozioekonomikoari eta Gipuzkoan identifikatzen diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiei buruzkoak dira, horietan esku hartuko baitute aurrekontu publikoek. Halaber, erreferentzia egiten diete aurrekontu publikoei eragiten dieten generoaren arloko dimentsio guztiei ere, hala nola gastuari eta diru sarrera publikoei. Zehazki, gastuen atalak hiru dimentsiorekin lotutako emaitzak jasotzen ditu: 16 aurrekontu programaren genero eraginaren azterketa–aurrekontu programa guztien % 18a hartzen dute–; Gipuzkoako Foru Aldundiko langile gastuak (1. kapitulua), eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politikak bultzatzeko egiturei lotutako gastuak: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateak. Bestalde, diru sarreren atalak bi dimentsiorekin lotutako emaitzak jasotzen ditu: diru sarrerak, aurreikusitako diru sarrerei erreferentzia egiten dietenak PFEZa, ondarea eta gastu fiskalak kontuan hartuta, eta diruzkoak ez diren diru sarrerak, bereziki Gipuzkoan etxeko lanekin eta ordaindu gabeko zaintza lanekin lotutako jarduerak egiten duten ekarpen ekonomikoari dagozkionak. Azken kasu horretan, helburua ez da soilik lan horiek egiten dituztenei ikusgarritasuna eta balioa ematea; izan ere, horrekin batera, aukera ematen du aurrekontu publikoaren kudeaketaren esparruan foru erakundearentzat zaintza kargaren zati bat bere gain hartzeak edo arintzeak ekarriko lukeen benetako kostua edo aurrezkia zenbatesteko. Azkenik, txostenean zehazten den bezala, Memoriak azken atal bat du. Bertan, genero eraginaren ebaluazioaren emaitzak laburbiltzen dira, aurrekontu proposamenaren indarguneak eta ahuleziak identifikatuz, bai eta etorkizuneko ekitaldietako aurrekontu plangintzaren esparruan jorratzea gomendatzen diren hobekuntza proposamenak ere, plangintza horrek emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izango duela bermatzeko.

Esparru horretan, txostenak, orain arte adierazitakoa kontatzeaz gain, Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusietako batzuk ateratzen ditu Memoriatik, bai eta 2025erako aurreikusitako aurrekontu gastuari lotutako dimentsioen genero ikuspegitik egindako azterketatik eratorritako emaitza nabarmenenetako batzuk ere.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzea eta zerga araudiaren genero eragina aztertzea

Aurreproiektuaren xedapen iragankorretan proposatutako arau aldaketekin (tasak, errepideen kanona eta OHZren katastro balioak eguneratzea) lotutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzeari dagokionez, txostenak dio ez dagoela "emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera ezagutzeko behar den daturik" foru erakundearen tasei eta errepideen kanonari dagokienez. Halaber, "arlotan horiek jorratzen saiatzeko ahalegina egitea" aurreikusten da; izan ere, "Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2025eko aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio memoriak" bereziki jasotzen du hobetzeko proposamen gisa Foru Aldundiaren diru sarreraren azterketaren irismena handitzeko beharra, tasa eta prezio publikoetatik datozen diru sarrerak integratuz.

Hala ere, OHZri lotutako genero desberdintasun potentzialak identifikatu dira. Hala, OHZren erroldako 2024ko zerga ekitaldiko datuak sexuaren arabera bereizita aztertuz gero, ikusten da emakumeak ondasun higiezinaren titular diren pertsona fisiko guztien % 52 direla, emakumeek aitortutako ondasunek katastro balioaren % 52,8 metatzen dutela eta OHZren % 52,5 ordaintzen dutela (54 milioi, gizonek ordaintzen dituzten 49 milioien aldean).

Azkenik, txostenak 2024an indarrean egongo diren katastro balioen % 2 eguneratzeak izango duen genero eragina ebaluatzen du, eta estimatzen du proposatutako aldaketak zerga bilketan 2,1 milioi euroko eragin positiboa izango duela (emakumeek 1,1 milioi euro gehituko dute ordaindu beharreko zenbatekoa, eta gizonek milioi bat euro), eta eragin positiboa izango duela, nahiz eta mugatua izan emakumeen eta gizonen berdintasunean; izan ere, nahiz eta emakumeek aitortutako katastro balioen % 52,8 metatzen duten eta ehuneko txikiagoa ordaintzen duten (% 52,5), emakumeen aldeko diferentzia positibo hori oso txikia da.

Hala eta guztiz ere, txostenak onartzen du genero eraginaren ebaluazio horrek irismen mugatua duela, gutxienez bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, ebaluazioa OHZri lotutako eraginarekin soilik lotuta dagoen arren, katastro balioen eguneratzeak zerga kopuru handi batean ondorioak dituela aitortzen delako, "balio hori maiz erabiltzen baita horien zerga oinarria zehazteko". Eta, bigarrenik, OHZri lotutako genero desberdintasun potentzialak bere osotasunean identifikatzeko eta ulertzeko aukerarik ematen ez duelako eta, beraz, horiek murrizteko neurri posibleen diseinua bideratzen laguntzen ez duela adierazten delako.



Zailtasun horiek gainditzeko, txostenean azterketa aberastea proposatzen da etorkizuneko ekitaldietarako, "ondasun horien titularren ezaugarri pertsonal eta familiarretan sakonduz". Aipatzen den azterketak "ondasun higiezinaren jabetzarekin eta titulartasunarekin lotutako beste zerga batzuetan dauden arrakala batzuk hobeto ulertzen lagunduko du", hala nola "emakumeentzako arrakala negatiboekin lotutakoak PFEZaren kapital higiezinaren etekinetan eta ondarearen gaineko zergan ondasun higiezinengatik aitortutako balioen zenbatekoan".

ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztiaren arabera, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27.2.b) artikuluan dioena betez, egiaztatu da 2025eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektua sustatu duen departamentuak **partzialki ezarri duela** 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutako prozedura.

Eta hori horrela da dagokion prozeduran ezarritako urratsak jarraitu direlako – aurreproiektuaren genero-egokitasunaren identifikazioa, emakumeen eta gizonen egoeraren identifikazioa eta azterketa eta genero inaktuaren aurretzako ebaluazioa–, aurrekontu araudian zein aurreproiektuaren zerga araudian araututako alderdiei dagokienez.

Hala ere, prozedura behar bezala aplikatu izanak ez du esan nahi aztertzen ari garen arau proposamenean erregulatutako alderdien genero eraginari buruz egindako alde aurreko ebaluazioak –ezta sustapen organoak bidalitako txostenak ere– aukera ematen duenik ondorioztatzeko proposatutako aurreproiektuak eragin positiboa izango duela emakumeen eta gizonen berdintasunean. Batez ere, genero ikuspegitik aztertu diren dimentsioei buruz egindako azterketak erakusten duelako, oro har, analisisien irismena zabaltzeko beharra –foru langileei lotutako gastuei, aurrekontu programei, diru sarrerei, gastu fiskalen eta gastu politiken arteko loturei dagokienez–, eta, era berean, aurrekontuen eta zergen arloan genero berdintasuna txertatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzeko beharra.

Aitzitik, egindako ahaleginak, funtsean "Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2025eko aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretzako ebaluazio memorian" eta xedapen iragankorretan jasotako zerga aldaketen azterketari buruzko esku artean dugun txostenean jasota dagoenak, norabide zuzenean egiten du aurrera. Izan ere, aurrekontu aurreproiektuaren generoari dagozkion dimentsio guztien azterketan asko ari da aurreratzen, aurrekontu aurreproiektuaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa bermatzeko, eta ildo horretan etorkizuneko aurrekontu ekitaldietarako bultzatu beharko liratekeen hobekuntza proposamenak ikusten dira. Bereziki, honako hauek:



- Genero ikuspegiaren azterketa aurrekontu programa gehiagotara hedatzea, eta laguntza eta aholkularitza espezializatua bultzatzen jarraitzea, genero ikuspegia txertatzen duten 16 aurrekontu programek emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezaketen eragina areagotu dezaten.
- Enplegu publikoan genero desberdintasunen ezagutza hobetzea eta neurri zehatzen ezarpena bultzatzen jarraitzea, hainbat alderdi zuzentzeko, hala nola soldata desberdintasunak soldata desberdintasun larria duten lanbide talde eta profiletan, lanpostuak baloratzean izaten diren genero joerak, edo emakumeen eta gizonen ordezkariak desorekatua foru administrazioko hierarkiako postu gorenetan.
- Berdintasunerako foru politikak bultzatzeko egituretara bideratutako aurrekontu esleipena pixkanaka eta proportzionalki handitzea, esaterako, Berdintasunerako Organoko eta berdintasunerako departamentu unitateetako langileei dagokienez. Unitateen kasuan, langile horiek arduraldi eskusiboa eta berdintasunean espezializatutako prestakuntza dutela ziurtatuko da.
- Foru erakundearen diru sarreraren azterketaren irismena zabaltzea –oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga edo sozietateen gaineko zerga, bai eta zeharkako zergak eta tasa eta prezio publikoak ere–, ikuspegi osoagoa eta zehatzagoa lortzeko zerga politikek emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eraginari buruz, eta aztertzeko zer lotura dagoen etxeko lanen eta ordaindu gabeko zainketen banaketa desberdinaren artean emakumeen eta gizonen artean, eta zer neurritan dauden horiek murriztera bideratuta foru politika publikoak, kontuan hartuta eragin zuzena dutela emakumeen autonomia ekonomikoan, enplegurako sarbidean, osasunean eta ongizatean, oro har, haiek baitira etxeetan zaintza eta etxeko lana sostengatzearen arduradun nagusiak.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharrekoa da aurreproiektua sustatu duen organoaren – Ogasun eta Finantza Departamentua–, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren eta aurrekontu aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena egiaztatu duen organoaren –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa– lankidetzaren balioa, 2025erako proposatutako aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko balorazioaren kalitatea nabarmen hobetzeko, ikuspegi, irismen eta analisi kuantitatibo zein kualitatiboari dagokionez. Ebaluazio horren berri ematen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025eko aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio memorian. Lan hori eta orain arte egindako ibilbidea sustatu beharrekoak dira, zalantzarik gabe, laguntzen baitute egiturazko baldintzak sortzen, zorrotasunez aurrera egin ahal izateko etorkizuneko aurrekontu diseinuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako aginduak benetan betetzen dituela bermatzen.



Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari** dagokionez, testuaren gaztelaniazko bertsioan ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

Donostian, 2024ko urriaren 31n.

Ana Agirre Sáez de Eguilaz
Berdintasuneko zerbitzuburua

Laura Gómez Hernández
Berdintasun teknikaria

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa